

Gure produktuko kosturik garrantzitsuena koltxoiak izango dira. Hauek erosi behar ditugu ondoren tenperatura sentsoreak, aire kamarak eta monitorizazio teknologia barruan sartzeko.

Kostuak honelakoak izango dira:

- Instalazioen eta haien argi eta elektrizitatearen prezioa ez da aldatuko eta finkoa izango da. 500€ inguru izango dira hileko.
- Koltxoi bakoitzaren prezioa 450€-koa izango da eta zenbat behar ditugun arabera aldatuko da. Hasiera batean, hileko 15 koltxoi erosiko ditugu.
- Koltxoiko 8 aire kamera behar dira beraz, koltxoi bakoitzean 80€ gastatuko ditugu aire kameretan. Kostua aldatu egingo da koltxoi kopuruaren arabera
- Tenperatura sentsore bakoitzak 15€ balio ditu eta koltxoi kopuruaren arabera aldatuko da.
- Monitorizazio teknologiak 75€ balioko ditu koltxoieko. Beraz, kostu aldakorra da.

Gure enpresak produktuaren kalitateagatik funtzionatuko du.